

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA**Foru Gobernu Kontseiluak 2025eko ekainaren 25eko ohiko bilkuran onetsitako ebazpenen laburpena****— Erabakiak:****DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA**

361/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea dirulaguntza bat emateari Eda Drinks & Wine Campus 2025 Fundazioari.

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

362/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea enpresa hauei adjudikatzeari Arabako Foru Aldundiarentzako eta beste erakunde batzuentzako telekomunikazio zerbitzuak ematea: Euskaltel SAU–Orange Espagne SAU (4. sorta) eta Telefónica de España SAU–Telefónica Móviles España SAU–Telefónica IOT eta Big DataTech SAU aldi baterako enpresa elkarteak (5. sorta). Gauzatze epea: 5 urte.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

363/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Martiodako zenbait finkaren erabilera bere Administrazio Batzarrari lagatzea, Basatxi ehiza barrutian sartzeko.

364/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea, Nekazaritza Sailak hala eskatuta, M_T02/2025/0000000011 kreditu transferentziaren espedientea, 90.266,46 eurokoa, “Kreditu Orokorra” partidarako.

365/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Tobillaseko San Roman elizaren erabilera lagatzeari, higiezia helburu kulturaletarako erabiltzeko.

366/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea, Nekazaritza Sailak hala eskatuta, M_S01/2025/0000000012 kreditu transferentziaren espedientea, 145.984,50 eurokoa, funtsez hornitzeko “Baso Kudeaketa Iraunkorra Partzuergoko Mendiak” partida.

367/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Kexaako Monumentu Multzoaren errentamendu kontratua sinatzeari Esclavas del Señor AIE produkzio etxearekin, telebistako serie bat filmatzeko.

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

368/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko Arabako eta Trebiñuko enklabeak udalek eta kuadrillek sustatutako programak edo jarduerak garatzeko dirulaguntza lerroaren ebazpenari, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 17ko 751/2024 Erabakiak onartua.

369/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Araban Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Estrategikoari (2025-2029).

370/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren irizpideari, zeina baita Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Errejidoreak eta Kideak Hautatzeari buruzko 1984ko uztailaren 30eko Foru Araua aldatzeko foru arauaren proposamena Batzar Nagusiek aintzat hartzearen aurkakoa.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

371/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea "Zadorraren ibilbide berdea (Billoda-Trespondetik A-3302 errepiderako tartea) gauzatzeko proiektua, 1. fasea" delakoaren obrak kontratatzeko espedientearen ezaugarri taulan antzemandako akatsa zuzentzeko, zeina Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 27ko 286/2025 Erabakiaren bidez onetsi baitzen.

372/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Construcciones Itola SA enpresari adjudikatzeko Manzanosko hondakin urak bateratzeko kolektorea eraikitzeko proiektuaren obra kontratua, 402.831,22 euroko zenbatekoan (BEZa barne), eta sei hilabeteko gauzatze epearekin.

373/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Guinaldura SL enpresari adjudikatzeko Uribarri Ganboako urtegiaren ibilbide berdean, presaren eta Langraiz Ganboaren arteko tartean, trazadura eta zoladura material granularrekin hobetzeko obra kontratua, 298.998,13 euroko zenbatekoan, BEZa barne, eta 5 hilabeteko gauzatze epearekin.

374/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Construcciones Itola SA enpresari adjudikatzeko Mezkiako herrigunea eta Aguraingo hornidura sistema lotzeko proiektuaren obrak, 648.851,43 euroko zenbatekoan, BEZa barne, eta zortzi hilabeteko gauzatze epearekin.

375/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea luzatzeko Martiodako Faunaren Susperregiaren kudeaketa integralari dagokion zerbitzu kontratua. Kontratu hori Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 30eko 480/2024 Erabakiaren bidez adjudikatu zen.

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

376/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Zadorraren Ibilbide Berdea (Billoda-Trespondetik A-3302 errepiderako tartea) gauzatzeko proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari.

377/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Manzanosko hondakin urak bateratzeko kolektorea eraikitzeko proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrenda jendaurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioen erantzunari, proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari, eta premiaz okupatzeko deklarazioa egiteari.

378/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea eguneratzeko Arabako Lurralde Historikoan bidaiarien herri arteko erabilera orokorreko errepide bidezko garraio publiko erregularren zerbitzuaren emakidako bidaiari tarifak (C-03 Bilbo/Iruñea).

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

379/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 3ko 713/2021 Erabakia aldatzeko.

380/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua aldatzeko foru arau proiektuari.

381/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Axpuruko Administrazio Batzarreko kudeaketa batzordearen kide kudeatzailea izendatzeko.

382/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Aytos Soluciones Informáticas SLU enpresari adjudikatzeko udal errolda kudeatzeko sistemak modernizatzeko zerbitzuen kontratua. Kontratuaren zenbatekoa 315.466,36 eurokoa izango da, BEZa barne, eta gauzatzeko epea bost hilabete eta erdikoa.

383/2025 Erabakia, ekainaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea hirigintza plangintzako tresnak eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedurako agiriak idazteagatik ordaindu beharreko ordainsariak finantzatzeko dirulaguntza lerroaren deialdiko hirugarren esleipenari (Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 19ko 155/2024 Erabakiaren bidez onetsi zen deialdia).